

# Pentsuetarako lehengaien katalogoaren hirugarren eguneraketa 17/06/29

## DESKARGATU PDF

Pentsuak merkaturatzeari eta erabiltzeari buruzko

### **767/2009 Araudiarekin (EE)**

araudiarekin bat etorrira, pentsuen ekoizpen-kateko EBko erakundeek hirugarren eguneraketa hau bultzatu dute, eta, hein handian, EBko agintariak eta estatu kideak babestu dute.

35 sarrera berri egin dira, eta, horrez gainera, sarrera ugariaren izenak eta deskribapenak hobetu dira. Zehazki, honako hau egin da:

Oleaginosoen irinak birrintzen eta fintzen dituzten establezimenduetako produktuen deskribapenean xaboiaren presentzia egoteko aukeraren aipamena sartu da, eta

Intsektuetatik datozen proteina prozesatuen eta gantzen lehengaien deskribapena berrikusi da.

Azterketa sakona egin zaie, halaber, mikroorganismoak izan ditzaketen produktu hartzituen erabilera egokiari buruzko xedapen orokorrei (A ZATIA) eta 12. kapituluko zerrendari (hartzidurak sortutako animalien elikadurarako lehengaiak).

Gainera, mikroorganismoen presentziari buruzko azalpen gehigarri bat ere jarri da.

Bestalde, pentsu-enpresen ustiatzaileek 2018ko urtarrilaren 11 baino lehen egokitu beharko dituzte beren etiketak eskakizun berrietara.

Gogorarazi behar da pentsuetarako materialen katalogo hori ez dela zehatza eta borondatez erabiltzen dela. Katalogoan agertzen ez diren pentsuetarako lehengaiak EBn merkaturatu eta erabil daitezke, baldin eta animalien elikadurarako lehengaien komunitateko erregistroan jakinarazita badaude

**(<http://www.feedmaterialsregister.eu/>**

) eta ezpurutasun kimikorik ez badute.

2018ko urtarrilean ekingo zaio pentsuetarako lehengaien erregistroaren berrikuspenari. Pentsu-enpresen ustiatzaileei gonbidapena egiten zaie arestian adierazitako webgune hori erabiltzeko katalogoari zuzenketa-iradokizunak egiteko edo argibideak eskatzeko. Ondoren, datuok EBko animalien elikadura-sektoreko ordezkariak erabiliko dituzte, katalogo hori laugarrenez eguneratzeko 2018ko udazkenean.

## **Informazio gehiago**

### **ELIKA**

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .

**[berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus)**

Close

**Necessary**

Always Enabled